
IZENPEren INTIMITATE-POLITIKA

1. Izenpek abenduaren 13ko 15/99 Legeak, datu pertsonalak babestearen ingurukoak, berori garatzeko egindako xedapenek eta abenduaren 19ko 59/2003 Legeak, sinadura elektronikoari buruzkoak, xedatutakoaren arabera jokutzen du bere jardunean datu pertsonalak erabiltzeko garaian.
2. Izenpek jakinarazten dizu datu pertsonalen fitxategi automatizatu bat dagoela eta berorren arduraduna Izenpe dela.
3. Datu pertsonalak zuzenean jaso dira ziurtagirien harpidedun, gakoan edukitzaile eta eskatzaileengandik, horien baimen esplizituarekin, legez beharrezkoa den kasuetan. Ziurtagiriak egiteko eta horiek mantentzeko beharrezkoak diren datuak bakarrik eskatzen dira.
4. Ziurtagiriak jaulkitzeko beharrezkoa den informazio guztia konfidentziala izango da eta ezingo da ezagutzera eman titularraren berariazko baimenik gabe.
5. Izenpek beharrezko neurriak hartuko ditu datu horiek aldatzea, galtzea, erabiltzea edo baimenik gabe lortzea ekiditeko, une oro teknologiaren egoera zainduz, ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuan, datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien araudia onartzen duenean, aurreikusitakoaren arabera.
6. Izenpek titularraren idatzizko baimena eskatuko du ziurtagiriak berorien erregistroan argitaratzeko.
7. Edozein eskatzaile, harpidedun edo gakoan edukitzailek eskatu ahal izango dizkio bere datu pertsonalak Izenperi berorren helbidera gutuna bidaliz (Mediterraneoaren hiribidea 3, 01010 Vitoria-Gasteiz). Bertan interesdunaren izen-abizenak eta jakinarazpenetarako helbidea adierazi beharko ditu, baita honakoa erantsi ere: NANaren kopia, nazioko herritarra bada; egoitza-txartelaren kopia, Europar Batasunaz kanpoko atzerritarra bada; edo AIZ eta identitatea egiaztatu ahal izateko indarrean dagoen identitate-agiri baten kopia, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko kide den estaturen

bateko hiritarra bada.

8. Izenpek ezingo du aldatu jada jaulkitako ziurtagiria. Hori dela eta, ziurtagirian jasotako datu pertsonaletakoren bat zuzendu edo ezeztatu nahi duten titularrek gutuna bidali beharko dute aurreko puntuan adierazitako posta-helbidera. Izenpek jakinaraziko dio ezinbestekoa dela bere ziurtagiria ezeztatzea datu pertsonaletakoren bat zuzentzeko edo ezeztatzeko.
9. Aurreko puntuan aurreikusitakoa alde batera, Izenpek jakinarazten dizu ezeztatutako ziurtagiriei dagozkien datu zuzendu edo ezeztatuak 15 urtez gordeko dituela Izenpek, sinadura elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean aurreikusten den bezalaxe.